

# eskola kampin-denda batean

Errefuxiatu-esparruetako hezkuntzaren aldeko kanpaina

## Proposamen Didaktikoa



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
Garapen Lanikidetzarako Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Dirección de Cooperación al Desarrollo



ALBOAN

*Alberak  
Sortzen*

Jesuitek sortu eta bultzatutako Fundazioa  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

## AURKIBIDEA

1.	Proposamenaren aurkezpena.....	3
2.	Errefuxiatuak eta lekualdatuak.....	4
3.	Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua .....	5
4.	Haur-hezkuntzarako ariketak .....	6
5.	Lehen hezkuntzarako ariketak .....	8
	• Lehen zikloa: 1. eta 2. mailak .....	8
	• Bigarren zikloa: 3. eta 4. mailak .....	10
	• Hirugarren zikloa: 5. eta 6. mailak.....	11
6.	Bigarren hezkuntzarako ariketak .....	12
	• Lehen zikloa: DBH 1 eta 2.....	12
	• Bigarren zikloa: DBH 3 eta 4 .....	13
7.	Batxilergorako ariketak .....	15
8.	Material eta baliabide osagarriak .....	16



ARGAZKIAK: DANI VILLANUEVA SJ.

## 1. PROPOSAMENAREN AURKEZPENA

Koaderno honen bidez, errefuxiatuen eta lekualdatuen egoeraren berri eman nahi dizugu, modu erraz eta egiazko batean, baita arazo horren aurka jarduteko eta mobilizatzeko tresnak eskaini ere.

Proposamen honetan landu nahi ditugun funtsezko alderdiak hauek dira: errefuxiatuen egoera, batetik, eta hezkuntzak giza eraikuntzarako duen balio izugarria, bestetik. Izan ere, hezkuntza ezinbesteko elementua da gizakien eta herrien garapenerako.

*Eskola kanpin-denda batean* proposamenak errefuxiatuak eta lekualdatuak babesteko gonbita egiten dizu, eta, horretarako, hiru urrats hauek egitea proposatzen:

### 1. Ezagutu nola bizi diren errefuxiatuak eta lekualdatuak.

Hezkuntza-proposamen honetan, hezkuntza-maila bakoitzerako prestatutako ariketak aurkituko dituzu. Ariketa horien helburua da ikasleak egoera horretara gerturatzea eta errefuxiatuek etxetik ihes egiten duten errefuxiatu-esparruetan hartzen dituzten arte bizi behar izaten dituzten egoera zailak ulertzea.

### 2. Parte hartu: zure inguruko jendeari egoera horren berri eman.

Zure ikastetxerako errefuxiatuek eta lekualdatuek bizi duten egoerari buruzko sentsibilizazio-kanpaina txiki bat prestatzeko eskatzen dizugu. Hona hemen ideia batzuk:

- **ikastetxea irudi eta posterrez apaintzea** (argazkiak eta ebakinak aldizkarietan bila ditzakezu).
- **munduko mapa batean kokatzea errefuxiatu-esparru eta gatazka-eremu batzuk.**
- **kanpainarako eslogan bat asmatzea.**
- **familiak inplikatzeko**, kanpainari buruzko informazioa bidaliz
- **eskolaz kanpoko ekintzaren bat antolatzea hezkuntza-komunitate osoarentzat** (erakusketa bat, bideo-emanaldi bat, hitzaldi bat...).

Gu, berriz, hemen gauzkazu, ariketa horietakoren bat antolatzen laguntzeko prest.

### 3. Lagundu Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua babesteko ekintza zehatzak bultzatzen.

Sentsibilizazio-kanpainarekin batera, laguntza ekonomikoa emateko kanpaina bat antolatzea proposatzen dizugu, proiektu jakin bat babesteko. Proiektu horri buruzko informazio zehatza emango dizugu.

Hona hemen ideia batzuk:

- **Gelan:** talde bakoitzak erabaki dezake nola egin. Komeni da gelako ahalegin ekonomikoa ikasleek egitea batik bat, ez haien familiekin.
- **Ikastetxean:** ikastetxe osoa eta langile guztiak inplikatu behar ditugu, eta ekarpenak denek ikusteko modu bat bilatu (adibidez, kutxa bat denek ikusteko moduko leku batean jartzea eta talde guztiek hara eramatea gelan jasotakoa).
- **Familiekin:** familiekin ekarpenak egiteko gonbita egingo diegu. Garrantzitsua da ikastetxean egiten ari garen kanpainaren berri ematea (gutun baten bidez edo antolatzen diren eskolaz kanpoko jardueretara gonbidatuz), eta lankidetzarako bide zehatzak eskaintzea.

Ekimen horiek aurrera eramateko, guk, **ALBOAN**en, material osagarriak ditugu; esaterako, horma-irudiak eta pegatinak. Kanpaina antolatzen ere lagun diezazuekegu.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

## 2. ERREFUXIATUAK ETA LEKUALDATUAK

Munduko oso leku desberdinetako milioika pertsonak utzi behar izaten dituzte beren etxeak eta jabetza guztiak bizirik jarraitzeko. Egun batetik bestera, lurra, etxea, familia... utzi eta joan egin behar izaten dute, gainean eraman dezaketzen apurra hartuta.

Errefuxiatuen estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenak honela definitzen du **errefuxiatua**: *Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur zentzuzkoak bultzatuta bere herrialdetik kanpo dagoena, eta bere herri-aldearen babespean egon ezin dena, edo, beldur horiengatik, bere herrialdearen babespean egon nahi ez duena, edo nazionalitateari izan ez eta arrazoi horiengatik ohiko egoitza izan duen herrialdetik kanpo dagoelarik, herrialde horretara itzuli ezin dena edo, beldur horiengatik, herrialde horretara itzuli nahi ez duena.*

**Herrialdean bertan lekualdatuak** etxeak edo ohiko egoitza-lekuak utzi *egin behar izan dituzte, gatazka armatuengatik, barne-bortxakeriengatik, giza-eskubideen bortxaketa sistematikoarengatik eta hondamendi naturalengatik edo gizakiak eragindakoengatik.*

Errefuxiatuek ez bezala, lekualdatuek beren herrialdeetan jarraitzen dute; errefuxiatuek, berriz, nazioarteko mugak zeharkatzen dituzte.

Horrenbestez, askotarikoak dira ihes egiteko arrazoiak: **jatorri etniko, erlijio edo ideia politikoengatik jazarpena, edo gerra eta bortxakeria egoeretatik ihes egitea.**

Zenbaitetan, herri osoek jasaten dituzte gatazka armatuak eta jazarpena, eta bortxakeritik ihes egin behar izan dute. Beste batzuek, berriz, muturreko pobrezia-egoerek edo leku horretan bizirauteko aukerarik ez izateak eraginda utzi behar izaten dituzte jatorrizko bizilekuak.

Gaur egun, derrigorrean lekualdatutako **50 bat milioi pertsona** daude munduan; hamarretik zortzi, emakumeak eta haurrak dira. Berrogeita hamar milioi lagun horien **erdiak Afrikan** daude.

18 urtetik beherako adingabeak ahulagoak dira, eta oso zaila da haien eskubideak betetzen direla bermatzea. Ihesak eta lekualdatzeak eragindako kaos horretan, babesaren, zainketa fisikoaren eta ongizate emozionalaren ardura-dun dituzten senideetatik bereizteko arrisku handia izaten dute hurrek. Horrenbestez, familietatik bereizteak arrisku handien aurrean jartzen ditu; esaterako, sexu-esplotazioa, gerra eta bortxaketa, haur soldadutzat hartzea, lan egin behar izatea eta eskolara joateko eta oinarritzko laguntzarik jasotzeko aukerarik ez izatea.

Laguntza humanitarioari eta garapenerako lankidetzari buruzko hiztegi honela definitzen da **Errefuxiatu-esparrua**: *giza kokaleku antolatatu bat, denbora-epe zehaztugabe batez jatorrizko estatuetatik edo ohiko bizitokietatik derrigorrean lekualdatutako jendea biltzen duena eta beste estatu baten lurretan antolatzen dena. Jendeak babesa lortzen du han, eta nazioarteko giza laguntza jasotzen du; bereziki, elikagaiak, aterpea eta laguntza medikoa.*



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

## 3. ERREFUXIATUENTZAKO JESUITEN ZERBITZUA (JRS)<sup>1</sup>

**JRS** nazioarteko erakunde katoliko bat da. Haren eginkizuna da errefuxiatuei eta derrigorrean lekualdatuei laguntzea eta haien eskubideak defendatzea.

1980an, Pedro Arrupe aitak —Jesusen Lagundiko jenerala sasoi hartan—, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua sortu zuen, errefuxiatuen eta lekualdatuen tragediari aurre egiteko. Arruperen ustez, eginkizun hark bi alde zituen: batetik, biktimen alde lan egitea; bestetik, gizarteari egoera haien berri ematea, erbesteartuei laguntzea eta haien eskubideak defendatzea.

JRS erakundea gatazka, hondamendi humanitario edo giza eskubideen bortxaketagatik etxetik ihes egin behar izan duen pertsona oroz arduratzen da. Erakundearen lehentasuna da lekualdatu eta errefuxiatu ahaztuenei, behar larrienak dituztenei, laguntzea.

Hezkuntza da JRS erakundeak ahalegin eta baliabide handienak eskaintzen dizkion arloetako bat, ziur baita hezkuntza giza eskubide bat dela, bakea eta garapena lortzeko bitarteko bat.

<sup>1</sup>JRSri buruzko informazioa: [www.jrs.net](http://www.jrs.net)

<sup>2</sup>ALBOANen lanari buruzko informazio gehiago izateko, jo gure webgunera: [www.alboan.org](http://www.alboan.org)

<sup>3</sup>ACNUR da Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ingelesez UNHCR, United Nations High Commissioner for Refugees): [www.acnur.org](http://www.acnur.org) edo [www.eacnur.org](http://www.eacnur.org)

luz, mundu osoko 25 herrialdetako 285.000 laguni eman zizkien hezkuntza-zerbitzuak JRSk.

Errefuxiatuei eta derrigorrean lekualdatuei laguntzea eta haien eskubideak defendatzea da JRSren eginkizuna, eta **ALBOANek**<sup>2</sup> bat egiten du zeregin horrekin, justizia eta bizitza duina guztion ondare izango diren mundua eraikitzeko ahaleginarekin.

Bi erakunde horiek batera lan egiten dute errefuxiatuen eta lekualdatuen esparruetan hezkuntza-proiektuak aurrera eramaten. Haien helburua da kalitatezko hezkuntzarako aukera ematea gatazka armatu baten ondorioak pairatzen dituztenei, lehen eta bigarren hezkuntzako programen, helduak alfabetatzeko eskolen eta irakasleak prestatzeko programen bidez.

JRSk ACNURekin<sup>3</sup> batera lan egiten du. ACNUR Nazio Batuen erakunde bat da, jazarpen edo gatazkeengatik errefuxiatu edo lekualdatu direnak babesteko ardura duena. Halaber, haien egoerari irtenbide iraunkorak ematea sustatzen du, jatorrizko herrialdean edo harrerakoan berriro kokatuz.

**Helburuak:**

- Gerrak eta/edo lekualdatzeak pairatu dituzten haurren egoera ezagutzea.
- Haur guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzearen garrantziaz jabetzea.
- Etxetik ihes egin eta guztia utzi behar dutenek zer sentitzen duten jakitea.

1 ariketa: Gogokoen dudana



Haurrekin hitz egingo dugu:

- Zer duzu gogokoen zure etxetik?
- Nola sentituko zinateke egunen batean ezingo bazina etxera itzuli?

Bakoitzak etxetik gogokoen duen objektua, jostailua edo beste gauzaren bat aipatu behar du. Arbelean idatzi, haurraren izenaren ondoan.

- Nola sentituko ginateteke egunen batean etxea utzi beharko bagenu, ezingo bagenu gogoko dugun guztia, gurea den guztia, eraman?

Hori gertatzen zaie herrialde batzuetako haurrei. Etxetik alde egin behar izaten dute, ezin dutelako han bizi. **HAUR ERREFUXIATUAK** dira. Beste leku batera joan behar dute bizitzera, baina han ez dituzte beren gauzak, eta ezin dira etxera itzuli. Hartzen dituen lekuari **ERREFUXIATU-ESPARRU** deritzo. Errefuxiatu-esparru batean bizitzea zer den azaldu, labur samar.

ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

2 ariketa: BÉBÉren istoria

Haurrei Bébéréren historia irakurriko diegu, biribilean eserita daudela, haien arreta hobeto erakartzeko. Testua gutun-azal handi batean sartu, eta Afrikatik iritsi den gutuntzat aurkeztu.

Kaixo, Bébé Ratou naiz. Zazpi urte ditut.

Koukoun jaio nintzen, Txadeko Errepublikan.

Sorterria utzi egin behar izan genuen. Egun batean, aita korrika etorri zen, tiro-hotsak entzuten ziren urrutian. Amak poltsa handi bat hartu eta janari eta arropa pixka bat sartu zuen han. Oso triste zegoen. Ezin izan genuen ia ezer eraman. Ni izututa nengoen, ez bainekien zer gertatzen zen.

Herrixka hartako ia bizilagun guztiek alde egin genuen. Luze ibili behar izan genuen, eta ezkutatu. Ni oso nekatuta nengoen, baina amari lagundu behar nion etxeko txikiekin. Bi anaia txiki ditut: Abdul, bost urtekoa, eta Hissein, hirukoa.

Orain, errefuxiatu-esparruko etxetxo batean bizi gara.

Ez dugu urik, eta egunero ur bila joan behar dut, garbitzeko nahiz janaria prestatzeko behar baitugu. Argirik ere ez dugu, eta, hortaz, iluntzen duenean, etxean egon behar dugu, eta goiz oheratzen gara.

Oso pozik nago eskolara joan naitekeelako. Oso gogoko dut eskolara joatea eta lagunekin jolastea.

Egunen batean etxera itzuli nahi nuke.

Munduko mapan erakutsiko diegu non dagoen **AFRIKA**, eta non Txad. Gugandik oso urrun dago, eta hango egoera oso gogorra da, gerrak daudelako eta jende askok etxetik joan behar izan duelako (Bébék eta haren familiak, adibidez). Bébék bere historian kontatzen dizkigun sentimenduak errepatatuko ditugu. **TRISTE - IZUTUTA - NEKATUTA - POZIK** Sentimendu horiek noiz izan ditugun aipatuko dugu, eta zergatietan buruz ere hitz egin dezaket, nahi badute. Amaitzeko, galdetu nola sentituko liratekeen Bébéri gertatu zaiona gertatuko balitzaien.



IRUDIA: EKILIKUA.

LEHEN ZIKLOA

Helburuak:

- Gerrak eta/edo lekualdatzeak pairatzen dituzten haurren egoera ezagutzea.
- Kalitateko hezkuntza jasotzeko, eskola eta baliabide egokiak izatearen garrantzia balioestea.

1 ariketa: BÉBÉren istorioa (bi saio)



1go saioa:

Hasteko, haur-hezkuntzako ariketan jasotako **Bébé Ratou haurraren istorioa irakurri**, eta, gero, TXADeko haur horren istorioa ikusi, pixkanaka-pixkanaka.

Mapa batez lagunduta, **AFRIKA** eta **TXAD** non dauden eta gure eskola non dagoen azaldu. **ERREFUXIATU-ESPARRU** bat zer den, han nola bizi diren..., adierazi.

Argazkiak fotokopiatu, eta, historia kontatu ahala, aurkeztu. Gelan itsatsita utzi.

Kontakizuna amaitzean, Bebek kontatzen duena nola irudikatzen duten marrazteko esan.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

2. saioa

Bébéren istorioa gogora ekarri. Errazagoa izango da argazkiak eta marrazkiak bistan baditugu.

Bébék kontatzen duenaren eta guk bizi dugunaren arteko berdintasunak eta desberdintasunak nabarmendu:

— nolakoa da errefuxiatu-esparru bateko etxe bat?

— Eta eskola?

Bébéri buruzko berriak jaso ditugu. Gaur, handitzean zer izan nahi duen kontatuko digu:

Handitan, eskola eder bateko irakasle izan nahi nuke, haur guztientzat mahaiak eta aulkiak dituen eskola batean, eta irakurtzen, idazten, batuketak egiten... irakatsi.

Etxera, sorterrira, itzultzea ere gustatuko litzaidake. Baina, horretarako, bakea behar dugu han.

Zure berri izan nahi nuke, eta zuk gauza asko kontatzea.

Besarkada handi bat Txadetik.

Amaitzean, Bébéri gutun bat idazteko eskatu ikasleei, eta kontatzeko nolakoak garen, nolakoa den gure familia, zer dugun gogoko, nolakoak diren gure eskola eta gure etxea, etab. Gure argazki bat, edo gure etxearena nahiz familiarena, erantsi.

.....naiz eta ..... urte ditut.  
 .....(e/a)n jaiotzen.  
 .....(e/a)n bizi naiz, familiarekin batera,  
 .....  
 Etxean badugu ura eta .....  
 ..... ere badugu argia eta .....  
 ..... ere baditugu.  
 Gogokoen dudana da .....  
 Nire eskola da ..... . Eta .....  
 .....dugu.  
 Handitan ..... izan nahi dut  
 eta ..... lan egin .

2 ariketa: Gure eskola - Beste eskolak batzuk



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

Haurrekin hitz egin galdera hauei buruz:

- Nolakoa da gure eskola?
- Zer gela eta eremu daude?
- Zer material ditugu idazteko, jolasteko...?
- Ezagutzen dugu beste eskolarik?
- Nolakoa izango litzateke eskola bat kanpin-denda batean?

Kanpin-dendako eskola eta Beberen eskola elkarrekin alderatu. Errefuxiatuen eta lekualdatuen esparruen egoeraren berri eman ikasleei, baita haien instalazioen, baliabideen eta langile-eskasiaren berri ere.

Bi horma-irudi egin. Batean, gure ikastetxeko eremuen (gelak, jolastokia, komunak, jangela, psikomotrititate-gela...) eta gure ikastetxean ditugun materialen (liburuak, jolasak, margoak, mahaiak, aulkiak...) izenak edo marrazkiak jarri. Marrazkiak, ebakinak nahiz argazkiak erabili ditzakegu. Beste horma-irudian, "Eskola kanpin-denda batean" edo "Beberen eskola" izenburua jarrita, gauza bera egin, baina haur horiek zer leku eta material dituzten irudikatuz.

Arreta berezia jarri kanpin-dendari buruzko galderan, deserosotasuna eta baliabiderik eza zer diren jabetu daitezen.

Gehiago eta hobeko ikasteko baldintza onak eta behar adina baliabide dituen eskola izatearen garrantziari buruz hausnartu.

**BIGARREN ZIKLOA**

**Helburuak:**

- Errefuxiatuen eta lekualdatuen eremuetako jendearen egoera hurbiletik ezagutzea.
- Errefuxiatuek eta lekualdatuek pairatzen dituzten injustizia-egoeren berri izatea.

**1 ariketa: BÉBÉren istorioa - Nire istorioa**

Lehen zikloko 1. ariketan jasotako Bébéréren istorioa landu. Argazki baten bidez aurkeztu dezakegu Bébé. Hala, haur errefuxiatu horren bizitzako errefuxiatuei izena jarri eta haien errealitatea zehaztuko dugu.

Istoria irakurri ondoren, taldeko kide bakoitzari eskatu bere istorioa idazteko.

Biak bateratzean, alde deigarrienak aipatu. Galdera hauei buruz hitz egin:

- zergatik daude alde horiek?
- Nolako izan behar luke Beberen moduko haurren bizimoduak?
- Zer egin dezakegu?



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA S.J.

**2 ariketa: Istorioa partekatu<sup>4</sup>**

Ariketa honetan, ipuin bat osatu behar dugu, arbelean edo ikusteko moduko lekuren batean banaka-banaka itsatsiko ditugun hitz, marrazki edo objektuen bidez.

Horretarako, aurretiaz, hezitzaileak pakete sorpresa bat prestatu behar du, eta objektuak edo argazkiak (ama, aita, haurrak, etxea, liburua, arkatza, baloia, errefuxiatu-esparrua, maleta, jendea oinez, kubo bat, kandela bat, etab.) eta/edo hitzak (joan, utzi, errefuxiatu-esparrua, eskola, elkarri laguntzen diogu, elkarrekin lan egiten dugu, zurekin eta nirekin, egitekoak partekatzen ditugu...) jaso pakete horretan.

Ikasleek lurtean eseri behar dute, biribil bat osatuz, eta hezitzaileak pakete sorpresaren ondoan jarri behar du, eta ikasleak motibatzen saiatu.

*“Gaurkoa oso egun berezia da. Eskolan pake-  
te misteriotu bat jaso dugu. Bistakoa da urrutitik  
datorrela. Igorlearen atalean AFRIKA jartzen du,  
eta ERREFUXIATU-ESPARRU batetik bidali digu-  
te. Ikusi dudanez, marrazkiak, hitzak eta objektuak  
daude, bizirik daude, eta istorio bat osatu nahi  
dute. Orain, guztia berezita dago, baina eska-  
tu digute batzeko eta haien magiaz jolas egiteko,  
ezkutatzen duten istorioa ezagutu ahal izateko.”*

Haur bakoitzak elementu bat atera behar du paketetik, eta egokitu zaion marrazkia edo hitza baliatuz, istorioaren zati bat kontatu; jarraian, hurrengoak hurbildu behar du pakete-  
ra, eta aurrekoak utzi duen lekuan heldu istorioari eta hura kontatzen jarraitzeko.

Hala, guztien artean osatuko dute errefuxiatu-esparru bati buruzko istorio bat. Marrazki batetik hainbat ideia atera daitezke. Garrantzitsuena da denek egitea ekarpenen bat istorioari.

Guztia lurrean utzi, txukun. Hezitzaileak azternak eman behar ditu, istorioa errazago osatzeko, koherentea izateko eta taldekide guztiek parte hartzeko. Objektu guztiak lurrean utzi behar dira, ordenatuta.

Ipuina amaitu ondoren, osatutako piktogramari erreparatu, istorioa osorik irakurtzeko:

- Nor da gure istorioko protagonista edo protagonistak?
- Zer gertatzen da?
- Zergatik bizi dira errefuxiatu-eremu batean?
- Zer egoeratan bizi dira?
- Nola amaitzen da istorioa? Edo nola nahi genuke amaitzea?

<sup>4</sup> Entreculturasen “Da un paso hacia la igualdad” ariketatik egokitua, Días D-2001 (Emakumearen eguna) materialetik aterata.

**HIRUGARREN ZIKLOA**

**Helburuak**

- Etxea derrigorrean utzi behar izan duen jendearen egoerari buruz sentsibilizatzea: errefuxiatuak, lekualdatuak edo migratzaileak.
- Gure inguruko jendeak bizitzako lekualdatze- edo migrazio-esperientzien berri izatea.

**1 ariketa: Gure istorioa osatzen**

Ikasleei eskatu migrazio-prozesuren bat (landatik hirira edo beste herrialderen batera) bizi izan duen familiako kideren edo gertukoren baten argazki bat lortzeko, eta ikertzeko nolako izan zen migrazio-prozesu hura. Ikasle bakoitzak fitxa bat bete behar du, argazkia eta datuak jarrita. Partekatu eta deigarriena zer iruditu zaien esan behar dute. Ikasgelan jarri behar dute, ikusteko moduko lekuren batean. Interesgarria da izandako mugimenduei buruz hausnartzea eta egun go mugimenduekin erlazionatzea.

- Gauza bera da?
- Zer desberdintasun daude?

ARGAZKIA

Izena .....

Ahaidetasuna edo harremana .....

Jatorria .....

Helmuga-herrialdea .....

Zergatik joan ziren? .....

Nola sentitu ziren iristean? .....

Nola hartu zituzten? .....

Zer oroitzapen dituzte? .....

Iradokizuna: bideoz, grabazio batzuk egin eta muntaketa txiki bat osatu.

**2 ariketa: Etorkinei eta errefuxiatuei abesten**

Errefuxiatuen eta etorkinen egoerari buruz hausnartzera bultzatzen duten hiru abestirekin lan egitea proposatzen da (Pedro Guerraren “Extranjeros” eta “Raíz”, eta Manu Chaoren “Clandestino”). Eskatu taldeari gai horri buruzko abestiak bilatzeko. Garrantzitsua da letra idatzita ekartzea.

Abestia arretaz entzuteko eskatu taldeei (bai letrak, bai melodia). Abestia behin edo birritan entzun ondoren, hark eragiten dizkien ideiak eta sentimenduak bestekin partekatzeko eskatu. Sentimendu eta ideia horietan oinarrituta, gogoko duten musika bati letra jartzeko proposatu. Guztien aurrean aurkeztu sortutako abestiak.

Azkenik, guztien artean aztertu etorkinei eta errefuxiatuei buruzko aurreiritzi gisa identifikatzen ditugun ideiak, eta hausnartu gure abestiak lagundu dezakeen aurreiritzi horiek kentzen. Baiezkoa bada erantzuna, gure ikastetxearen edo taldearen ekitaldi batean kanta dezakegu, gainerakoak sentsibilizatzeke.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA S.J.

LEHEN ZIKLOA

Objetivos:

- Derrigorrean etxea utzi behar izan duten errefuxiatuek zer egoera jasan behar izaten dituzten ulertzea.
- Errefuxiatuen eta lekualdatuen etorkizuna aldatu ahal izateko zerbaite egiteko beharraz jabetzea.

1 ariketa: Motxilan

Eskatu taldeari ariketa hau egiazkoa balitz bezala egiteko, bizitza salbatzeko etxetik ihes egin behar izan duen munduko leku askotako pertsona baten larruan jartzeko. Testu hau irakurtzeko eskatu:

*Zure herrian, borroka ez dira amaitzen. Familiarekin arrisku horretatik alde egin behar duzu, eta dena utzi: etxea, lagunak, zure gauzak, eskola... Bost minutu dituzu etxea utzi eta herrialdetik alde egiteko. Zer sartuko zenuke motxilan, kilometro luze eraman beharko duzula jakinda? Zure familiaren biziraupena erabaki horren mende dago. Objektu erabilgarrienak aukeratu behar dituzu, baina hamar gauza soilik har ditzakezu.*

Bost minutu eman bakoitzak poltsan sartuko lituzkeen gauzen zerrenda egiteko. Denbora hori amaitzean, idazteari utzi egin behar diote, eta idatzitako hori soilik eraman dezaketela onartu.

Talde txikiak egin bakoitzak bere zerrenda aurkeztu eta idatzitako guztia eraman daitekeen edo ez eztabaidatu dezaten. Denbora-epe mugatua eman. Hainbat gauza kendu egin beharko dituzte poltsatik (adibidez, janaria jarri badute, zer eramango duten jarri behar dute; arropa jarri badute, berriz, zer arropa). Taldekide bakoitzak bost gauza soilik utzi behar ditu zerrendan.

2 ariketa: Iraganeko, oraino eta etorkizuneko aukerak<sup>5</sup> (bi saio)

Gelakideak hiru taldetan banatu, eta Liberiako errefuxiatuen eta lekualdatuen esparru bateko jendeak emandako testigantzak eta egindako marrazkiak begiratzeko proposatu.

Hiru multzotan bereizi: iragana, oraina eta etorkizuna. Talde bakoitzak multzo bat aztertu behar du. Interesgarria da, hasteko, marrazkietan zer ikusten duten deskribatzea eta esatea zer irudikatzen duten. Gauzarik deigarrienak idatzi, eta marrazkiek pertsona horien bizitzari eta sentimenduei buruz adierazten digutena kontatzeko idatzi bat prestatu. Jende horren etorkizuna aldatzeko egin ditzakegun gauzei buruz hausnartzeko eskatu.

*Irardokizuna: testua ingelesez eta frantsesez ere badugu, atzerriko hizkuntza batean landu ahal izateko.*

Guztiak batera eztabaidatzeko:

- Zergatik aukeratu dituzue objektu horiek, eta ez beste batzuk?
- Nola sentituko zinatekete eskuarki eskura ditugun hainbeste gauza utzi behar izanez gero?
- Bururatu zaizue gerora motxilan sartu beharko zenuketen beste gauza interesgarri edo beharrezkoren bat?
- Nola sentituko zinatekete egoera horretan?
- Pentsatu egoera horretan sentituko diren beldurrari, izuari eta ziurgabetasunari buruz.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

<sup>5</sup> Ariketa hau landu ahal izateko, beharrezkoa da online egitea lan edo "Etorkizun-aukerak" liburuan dauden irudi eta testigantzak inprimatu. <http://www.alboan.org> (euskeraz - Hezkuntza materialak - Material didaktikoa - Etorkizun aukerak - Iragana, oraina eta etorkizuneko aukerak).

BIGARREN ZIKLOA

Helburuak:

- Munduko errefuxiatuen eta lekualdatuen egoeraren berri izatea eta, haien etorkizunaz kezkatutik, errealitate hori aldatzeko beharraz kontzientziatzea.
- Errefuxiatua izatea zer den ulertzea, bizi-testigantza baten bidez.

1 ariketa: Errefuxiatuak, lekualdatuak, migratzaileak<sup>6</sup>

- Nor dira errefuxiatuak, lekualdatuak, migratzaileak?
- Badakigu horiek bereizten?
- Badakigu zenbat diren munduan?
- Nola bizi dira? Badute itxaropenik? Eta beldurririk?
- Zer eskubide eta betebeharrak dituzte?

Idea-jasa batez ekin ariketari, gaiari buruz zer dakiten ikusteko.

Taldean lan egiteko proposatu, eta errefuxiatu, lekualdatu eta migratzaileei buruz ikertzeko (kopurua, zergatik lekualdatu diren, jatorrizko herrialdeak, helmuga-herrialde ohikoak...). Errefuxiatuen eta lekualdatuen esparruetan bizi diren errefuxiatu eta lekualdatuen egoeraz ere ikertu behar dute.

Ondoren, hezitzaileak datu batzuk eman eta kontzeptu batzuk argitu behar ditu (informazio osagarria MATERIAL ETA BALIABIDE OSAGARRIAK atalean aipatzen diren erreferentziako webguneetan dago).

Gero, ideiak denen artean aztertu, eta topatu dituzten gauza berriak edo interesgarriak aurkeztu, zalantza berriak planteatu eta abar.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

<sup>6</sup> Errefuxiatuak, lekualdatuak eta migratzaileak 1 ariketatik egokitua (ALBOANen izen bereko erakusketako ariketa).

## 2 ariketa: Bizitza-testigantza

**Yunus testigantza**<sup>7</sup> eman, bakarka irakur dezaten. Deigarria egiten zaiena azpimarratu eta idazteko eskatu, baita harrigarri eta ezezagun zaiena ere, eta galderekin lan egin. Ondoren, taldetan banatuta, ondorioak atera behar dituzte, eta, segidan, ikaskide guztiei aurkeztu.

*YUNUS ABDUL KARIM HOSS, 36 urte. Lehen hezkuntzako irakaslea Touloumgo eskolan. Egunero, pozik esnatzen da, eta eskolak ematen ditu JRSk babesten duen eskolan.*

*"Yunus Abdul Karim Hoss naiz. 36 urte ditut, bi emazte eta hiru haur. Duela bost urte iritsi nintzen Touloumgo errefuxiatu-esparrura"*

*Saminak hartu du haren aurpegia Darfurren bizi zen garaia gogora ekartzeko eskatu diogunean. Gogoratzen du bera baserritar bakezalea zela, gerra hasi zen arte. Egun batetik bestera, dena galdu zuen, eta erbestera jo behar izan zuen. Touloumera joatea erabaki zuen, errefuxiatuak seguruago baitaude han beste esparru batzuetan baino. Beste bizimodu bati ekin behar izan zion.*

*Yunus en egoera ez da esparru horretan dauden gainerako milaka pertsonen bizimoduaren oso bestelakoa. Baina nazioarteko komunitatearen laguntzari esker, hango bizilagunek bizitza normala izan dezakete, pixkanaka-pixkanaka. Eskolak, gazteentzako guneak, osasun-zentroak, ur-putzuak, komunak, merkatu txiki bat... eraiki dituzte*

*"Ikasten jarraitu nahi nuke, gogor lan egin eta unibertsitatera joan. Prestakuntza onarekin, hona itzuli eta nire haurrei, nire herriari ikasi dudana guztia irakatsi ahalko nieke. Horixe da nire ametsa".*

Halako ametsak oso ugariak dira eskola honetan. Badirudi haur bakoitzak, irakasle bakoitzak baduela zerbait esateko guk pentsa dezakegunetik harago. Jende hau guztia amets egitera daraman egiazko indar bat dago, pairatu duten guztia gorabehera.

Hausnarketarako galderak:

- Zerk hunkitu zaitu gehien?
- Zer ikasi duzu errefuxiatuei buruz?
- Zer iruditzen zaizu larriena egoera horietan?
- Zer iruditzen zaizu YUNUSen ametsa?
- Zein da zure ametsa?

Yunus etxea uztera behartu zuen DARFUREko gatazkari buruz ikertzeko proposatzen dugu.

*Irudokizuna: Testigantza hau frantsesez ere badugu erbesteko hizkuntzatan landu nahi izan ezker.*

<sup>7</sup> Sudango errefuxiatu baten testigantza erreala, 2010eko ekainekoa.



ARGAZKIAK: DANI VILLANUEVA SJ.



\* Bigarren hezkuntzako bigarren ziklorako proposatutako ariketak batxilergoan ere landu daitezke.

## BIGARREN ZIKLOA

### Helburuak:

- Etxea utzi behar izan dutenen (errefuxiatuak, lekualdatuak, migratzaileak) egoera ezagutzea eta egoera hori aldatzearen beharraz kontzientziaztea.
- Ihes egitea eta babestea eragiten dituzten arrazoiei buruz hausnartzea.

## 1 ariketa: Errefuxiatzeko arrazoiak

- Zer gertatzen da milioika pertsonak etxea eta lurak derrigor uzteko?
- Zer dago egoera horiek eragiten dituzten gerren eta gatazken atzean?

Artikulu horretan eta ikertuko dituzten beste iturri batzuetan (ikus baliabide osagarriak) oinarrituta, gatazkaren arrazoiak aztertu behar dituzte, eta gatazka horrek zer ondorio izan dituen herritarren artean, eta errefuxiatuak edo lekualdatuak eragin duen.

Taldeka, aztertu egunkari bateko nazioarteko albisteei buruzko orriak, eta aukeratu munduko lekuren bateko gerra edo gatazkaren bati buruzko artikulu bat.

Talde bakoitzak ikerketaren emaitzak aurkeztu behar ditu, eta elementu berdinei, galderei, hausnarketei buruz hitz egin.

## 2 ariketa: Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua (JRS) ezagutzea

Hezkuntza-maila guztietan egin daiteke. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari buruz ahal dugun guztia ikertu behar dugu.

- Noiz sortu zen?
- Nork sortu zuen?
- Zer eginkizun du?
- Non dago?

Informazioa osatzeko, Etorkizun-aukerak liburuak Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuen presio politikoa dokumentua erabil dezakegu. (ALBOANen webgunean eskuragarri: Hezkuntza materialak / Material didaktikoak / Etorkizun-aukerak / Errefuxiatuen alde lan egiten duen erakunde bat ezagutzuz).

Batxilergoko ikasleek errefuxiatu eta lekualdatuei nahiz JRSri buruzko saio bat presta dezakete beste mailetako ikasleentzat.



ARGAZKIAK: DANI VILLANUEVA SJ.

### PEDRO ARRUIPE SARIAN parte hartzera gonbidatzen zaitugu: Errefuxiatuak ezagutzen

Bi urtez behin, Pedro Arrupe Saria antolatzen da, ikasleek errefuxiatuen egoerari buruz sentsibilizatzeko.

Proiektuak 3-5 ikasleren artean egin behar dira, eta hainbat formatu izan ditzakete: irratia-saioa, webgunea, entseguak, bideoak, jolasak, margoak, etab.

Ikasleei hau proposatu behar zaie:

- errefuxiatuen egoera ezagutzea eta egoera hori sakon aztertzea.
- ikasitakoa erakusteko proiektu original bat egitea.

Lehen aukeraketa ikastetxeak egin behar du, eta aukera-tutako proiektuak ALBOANi bidali. ALBOANek egingo du estatu osotik jasotako lanen aukeraketa. Aukeraturako lanak Europako SJRren egoitzara bidali behar dira. Han egingo dute azken aukeraketa.

Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.jrseurope.org/pedroarrupe-award](http://www.jrseurope.org/pedroarrupe-award)



## 8. MATERIAL ETA BALIABIDE OSAGARRIAK

### webguneak:

- [www.jrs.net](http://www.jrs.net)
- [www.jrseurope.org/pedroarrupe-award/es/alumnos.html](http://www.jrseurope.org/pedroarrupe-award/es/alumnos.html)
- [www.eacnur.org](http://www.eacnur.org)
- [www.cear.es](http://www.cear.es)
- [www.solidarios.org.es](http://www.solidarios.org.es)
- [www.pescandoenriorevuelto.com](http://www.pescandoenriorevuelto.com)

### alboan-en baliabideak:

- Ikus-entzunezko materiala: **Pertsona errefuxiatuen begitarateak eta oinatzak, eta jarduera-gida.**
- Erakusketa: **Errefuxiatu eta desplazatuak ere eskubideen jabe.**
- Liburuak: **Etorkizun-aukerak.**

### beste zenbait baliabide:

Gure baliabide-zentroan eskuragarri dauden materialak  
[www.alboan.org/centroderecursos](http://www.alboan.org/centroderecursos)

### liburuak:

- **Asmirrek ez du pistolarik nahi.** Christobel Mattingley, Elizabeth Honey. Eleberria.
- **Bosniara nahi.** Juan Kruz Igerabide. Eleberria.
- **El regalo de Memed** + gida didaktikoa (haur-hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehen zikloa). Intermon Oxfam.
- **Amina y Musa** + gida didaktikoa + DVDa (lehen hezkuntzako lehen zikloa). Intermon Oxfam.
- **Palestina, zure mina.** Begoña Bilbao. Eleberria.
- **Asiloaren figurara eta errefuxiatuen egoerara hurbiltzeko proposamena (elebiduna) + praktika.** Raquel Celis. (Material didaktikoa).

### filmeak:

- **Vete y vive.** Radu Mihaileanu. 2005.
- **La canción de Carla.** Ken Loach. 1996.
- **Invisibles.** Mariano Barroso, Isabel Coixet, Javier Corcuera, Elena García Quevedo, Wim Wenders y Fernando León de Aranoa. 2007.

### jolasak:

- **Cartas de los refugiados.**
- **Refugiopoly.** En busca de una nueva vida.
- **Cuando debes huir.** ACNUR
- **Refugioca.**
- **Camino a Huambo.** Gincana.

### cd-ak:

- **Pedro guerra.** "Ofrenda" y "Raíz".
- **Manu Chao.** "Clandestino".
- **Vidas rotas de personas refugiadas.**
- **Cruzar la raya para vivir** (<http://www.radioteca.net/verserie.php?pagina=1&id=2464>)

### dvd:

- **Arrasto Afrikarrak Briñasen.**

### jolasak on-line:

- **El juego del asilo:** [http://enredate.org/templates/default/flash/asilo/UNICEF\\_01\\_Actividad2.swf](http://enredate.org/templates/default/flash/asilo/UNICEF_01_Actividad2.swf)
- **Teu rescate:** [www.teurescate.org](http://www.teurescate.org)
- **Contra viento y marea:** [www.contravientoymarea.org](http://www.contravientoymarea.org)
- **Darfur está muriendo:** [www.darfurisdying.com/spanish](http://www.darfurisdying.com/spanish)  
(ACNURen webgune honetan, irakasleek informazio garrantzitsua dute taldeari hausnartzen laguntzeko).

#### IRUÑEA

Barañain Etorbidea, 2  
31011 - Iruñea  
Telefona: 948 231 302  
Faxa: 948 264 308  
[alboanna@alboan.org](mailto:alboanna@alboan.org)

#### BILBAO

Aita Lojendio, 2 - 2.  
48008 - Bilbao  
Telefona: 944 151 135  
Faxa: 944 161 938  
[alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org)

#### DONOSTI

Ronda Kalea, 7 - 4. I  
20001 - Donosti  
Telefona: 943 275 173  
Faxa: 943 320 267  
[alboangi@alboan.org](mailto:alboangi@alboan.org)

#### GASTEIZ

Monseñor Estenaga, 1  
01002 - Vitoria-Gasteiz  
Telefona: 945 202 676  
Faxa: 945 202 676  
[alboanar@alboan.org](mailto:alboanar@alboan.org)